

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1820

999/2022 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Lan Osasuneko Erizaina kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1477/2021 Ebazpenaren bidez, Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Lan Osasuneko Erizaina kategoriaren oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2022ko apirilaren 29a, ostirala

ERANSKINA

LAN OSASUNeko ERIZAINA

Batzordeburua:

- Titularra: Ainhoa Azpeitia Ansa.
- Ordezkoa: Maite González Nebreda.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Mainer Aguirre Lojo.
- Ordezkoa: María de la Paloma Del Río De Lama.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Íñiguez de Heredia López de Aberasturi.
- Ordezkoa: Eider Etxeberria Soriano.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Dolores Arratibel Mendizabal.
- Ordezkoa: Carolina Fernández Arteaga.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Concepción Cadiñanos García.
- Ordezkoa: María Isabel Macías Romero.

Idazkaria:

- Titularra: Enrique Aguirrezabal Otálora.
- Ordezkoa: Ainhoa Bilbao Maiza.